Heziketa fisikoa eta profesionalismoa garai arkaikoan eta klasikoan (K.a. VII-IV)

Garai honetan nabarmena da heziketa fisikoaren garrantzia, baina Espartan garatu zen lehenbizi eta hoberen (cf. Xenofonte) eta espartarrak izan ziren hain zuzen garaile olinpiar jokoetan K.a. VI. m. hasiera arte. Atenasen heziketa ez zen estatuaren eginkizuna, gurasoena baino eta ez dakigu zehaztasunez nola egiten zen. Batzuetan prestaketa eskasaren kexuak ere aurkitzen ditugu (cf. Aristofanes). Profesionalismoaren kontua argi ez den arren, beti izan da ikuspegi idealizatu bat, profesionalismoa baztertu duena (cf. Herodoto).

«[Likurgok] gazteen artetik hautaturiko mastigoforoak [zigordunak] ere ezarri zituen, behar zenean umeak zigortzeko, begirunea eta esanekotasuna bultzatuz. Gainera oinetakoak erabilita oinak findu beharrean oinutsik ibilita gogortzeko agindua eman zuen, uste baitzuen horrela jardunez gero askoz errazago igoko zituztela mendiak, ziurtasun handiagoz jaitsiko zituztela maldak, eta bizkorrago egingo zutela jauzi, salto eta lasterka. Eta gainjantziekin mengeldu beharrean urte osoan gainjantzi bakarra erabiltzen ohitu behar zutela uste zuen, hala hotzaren nola beroaren aurka hobeto prestatuta izango zirela pentsatuta. Janari dagokionean, agindu zuen mutilei ibilaldietarako eman behar zitzaien kantitatea, asebetearen pisua inoiz ez sentitu baina gosea ezagutzeko bestekoa izan zedila, pentsatuz halako heziketa har zezatenak gai izango zirela, behar izanez gero, jan gabe gelditzeko, eta anoa berarekin denbora gehiago iraungo zutela, hala aginduz gero».

Xenofonte, *Lazedemoniarren konstituzioa* 2.2-5

«Barrez lehertzeko zorian izan naiz Panatenearretan gizon astun bat ikusi dudanean makur-makur eginda lasterka, zurbilduta, potolo-potolo, atzean geratuta, ahaleginekin ito beharrean».

Aristofanes, *Igelak* 1089-1093

«Arkadiako desertore gutxi batzuk hurbildu zitzaizkien, ezer ez zutenez edozertan laguntzeko prest. Erregearengana eraman zituzten eta pertsiarrek galdeketa egin zieten, batek denen izenean hitz eginez, greziarrak zertan ari ziren jakin nahian... Olinpiar jokoak egiten eta lehiaketa atletikoak eta hipikoak ikusten zihardutela esan zuten. Pertsiarrak galdetu zuen zein zen lehian zegoen saria eta olibondozko koroa zela erantzun zuten. Orduan Tritantegmesek, Artabanoren semeak, oso iritzi zintzoa azaldu zuen baina

erregearen ustez koldartzat hartzeko modukoa; hain zuzen azaldu zitzaionean saria koroa bat zela eta ez dirua, ezin izan zuen isilik geratu eta ondokoa esan zien guztiei: *"Ai* ene Mardonio! Ze motatako gizasemeen aurka borrokatzera ekarri nauzu, diruagatik lehiatu beharrean euren tasunak neurtzearren baino ez baitira lehiatzen?"».

Herodoto 8.26[1]

[1] [Testu honen iturria: ZZEE (1998): *Historia testu bidez*, Arabako Foru Aldundia - EHU, Gasteiz. Itzulpenaren arduradun den Gidor Bilbaoren baimenaz].